

rentzat izango litzake eta bigarrena "Arantzazu'ko Amari" izene-koarentzat. Egilleak: Juan Baxurko eta Graziano Anduaga "Geltzako Aitona".

Atsegin biziz ikusi dute maiekoak zenbat olerki (amazazpi eta lau beriso-berri sorta) eta nolakoak agertu diran norgeiagoka onetara. Aipamen berezia merezi duten guztiak aipatzea luzeegia litzakelako, lau aipatuko ditugu bakarrik, sarituez gañera: "Zaharraren kimu berria", "Bosteun urte ta...". "Elorriko lorea", eta "Kutunki" izenekoak. Egilleak: Berasaluze'tar Sabin anaia, Zugasti'tar Anizeto apaiza, Dorronsoro'tar Lukas apaizgaia ta Sagarzazu'tar Kauldi, "Satarka". Ederki legoke benetan guziek liburuxo batean agertzea, Arantzazuko Andre Mariaren gorazarrez.

Artikuluetan, beste batzuen artean, aipamen berezia merezi du "Arantzazu Pentekostes berri" deritzanak. Egillea Aranalde'tar Joxe Mari.

Antzerki-saillean "Arantzazuko Anai Patxi" deritzanak elkar-izketa bizi ta errikoa agertzen du. Egillea: Arkotxa tar Joxe Antonio.

Arantzazu'n 1956'ko Agorraren 16'an.

A. ARRUE, M. LEKUONA, L. MITXELENA

Euskaltzaindikoak

Gero eskatu da Nikolas Ormaetxea (Orixe) ta Bonifazio Etxegaray jauneri telegrama bat ipifii bear litzaiakela batzar-kide guztien izenean beren bizitzan egin duten lanagatik merezi dituzten eskerrak emanez, geixorik baitaude eta etortzerik izan ezpaitute. Ao batez onetsi da ta orrela egin da.

Arrue jaunak bukatu ditu jardunak azkeneko itz auekin:

Jaun-andreak!

Entzun ditugu egun auetan itzaldi ederrak. Baita asmo onak artu ere. Gure egun auetako lanak, txit onuragarriak izango dirala noski euskerarentzat, uste det.

Baña... nabaitu det egun auetan gure artean alako akats txiki bat. Alegia, batzuek geiegi negar egin ote duten, derizkiot. Eus-

kera gainbeera dijoala, euskera azken-arnasetan arkitzen dala, euskera laister ilko zaigula,... entzun degu.

Gudaldi batean, gerrate batean orrela mintzaten diranei, badakizute zer egiten zaien: zigortu.

Guk ez degu emen iñor zigortuko. Guk egin bear degun gauza bakarra da, danok euskeraren alde aldegun lan guzia egin.

Nik ez dakit euskera laister ilko dan edo ez. Ori Jaungoikoa'k jakingo du. Baña nere iritzia da, euskerak iraungo duala munduak irauten duan bitartean!... Atzo Garmendia jaunak aitatu zizkigun liburuak noizbait ere saltzen badira edo ez, berdin...

Baña, jaunak —eta ondo entzun—, ez dezaiogun iñola ere euskerari, il baño len, illetarik egin, *entierrorik* egin!

Bukatzeko, itz bi. Gure egun auetako naitasun guziak, gure egun auetako asmo guziak eta gure egun auetako itxaropen guziak berengan laburkiro bildurik daramazkien itz bi. Auetxek: Gora euskera!!!

ANTONIO ARRUE.

Eta otordua eldu da. Bazkalondoa ere bai bere alaigarriekin. Arantzazuko frailekiak zenbait kanta ta txistu-soiñuarekin. Bertsolariak, Balendin Enbeita jaunak, bere ateraldi ederrekin. Garrow jaunak bere itz batzuekin, Bizkaiko erregeleri buruzkoak. Nafarrak beren kemena agertzearekin.

Ona emen bertsolariaren bertsoak:

I

Nere gorputza dar darka daukat
 Eta biotza kantari.
 Niretzat beintzat gaur Arantzazuk
 Zeru txiki bat dirudi.
 Bizkai, Gipuzko, Araba, Napar,
 Zubero ta Lapurdi,
 Gaur Arantzazun besarkaturik
 Berba emonaz alkarri,
 Erabagia artuten dabe
 Laguntzeko euskerari,